

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

2006.go urtarrilaren 20an, 21ean, 27an eta 28an jokatu zen Beriaingo Kultur Etxean. Liga moduan jokatu zen. Jokalari bakoitzak 2 ordu izan zituen partida osoa egiteko.

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Rafael Ruiz Escobar – 6 puntu.

- 2) Jesús María González Pabollet – 5'5 puntu.
- 3) Diego Moral Barragán – 4'5 puntu.
- 4) Julio Berango Lopeandia – 4'5 puntu.
- 5) Iñaki Arrizibita Legarre – 3 puntu.
- 6) Isidro Díaz Redondo – 2'5 puntu.
- 7) Francisco Javier Ayerra Aizpun – 2 puntu.
- 8) Salvador Etxeberria Arruabarrena – 0 puntu.

Rafael Ruiz Escobar laugarren aldiz jarraian izan zen Nafarroako betetan onena.

Iaz Salvador Etxeberria izan zen bigarren, baina aurten azkena geratu da, puntu bat bera ere atera gabe.

Isidro Díaz iazko hirugarren sailkatuak seigarren postua besterik ez du lortu.

Aurten zailagoa zegoen txapelketa 3 jokalaria gehiagok parte hartzen baitzuten (5etik 8ra).

Jesús María González Pabollet Nafarroako txapeldun ohiak Txapelketaren maila nabarmen igotzen zuen. Ez zuen lortu Ruiz Escobar tronutik jaitsiarazterik, ordea. Euren arteko norgehiagokan berdindu egin zuten, baina Pabolletek galdu zuen Diego Moralen aurka. Ruiz Escobarrek, bere aldetik, Ayerraren aurka puntu erdia besterik ez zuen utzi bildu gabe.

Diego Moral hirugarren sailkatuak Rafael Ruiz Escobarren eta Julio Berangoren aurka galdu zuen. Ayerrarekin berdindu egin zuen.

Julio Berangok puntutan Diego Moralekin berdinduta amaitu zuen Txapelketa. Ruiz Escobarren aurkako partida jokatzetik ez zuen izan eta horrek kalte egin zion. Isidro Díazekin berdindu zuen eta Jesús María González Pabolleten aurka galdu.

Nafarroan Txapelketa hau jokatzeko nahikoa da 50 urte beteak izatea. Orain dela urte batzuk adina 5 urtetan jaitsi zen eta emaitza Txapelketa bizkortzea izan da: Parte hartzea handiagoa da orain. Hala ere, ez dago Ruiz Escobar garaituko duenik, oraingoz.

2006-01-31.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.